

**EUSKARA, SEGURTASUN JURIDIKOEN
HIZKUNTZA OTE?**

Azken urteotan euskararen ofizialkidetasuna dela medio, nonnahi ikusten ditugu euskaraz formulariko testu eta idatzi juridikoak. Hauexen artean, zer esanik ez, egunero gure eskuetara heltzen diren Aldizkari Ofizialak eta mota guztietako testu antzekoak (oharterazpenak, ediktuak eta abar luze bat).

Zibilizazio honek sortu dituen mekanismo eta betebeharren artean, ez dira txikiak ere legearekin zerikusi dutenak. Paper, inprimaki, sinadurak noiznahi ditugu gure eskura, gure eskubideak eta eginbeharrak bete nahi baditugu behinik behin.

Eta horietan guztietan euskara dugu, esan dugun bezalaxe, azken urteotako lekuko eta partaide berria.

Nolakoa, ordea, bere partaidetza? Gehienez itzulpenaren bidez burutua. Itzultzailea beharrezkoa dugu gure gizartean, euskararen presentzia beharrezkoa dugun heinean bederen.

Halare, itzulpena eta itzultzaileak, premiazoak izanik ere, legelari euskaldunari gauza hauek frankotan burutik pasatzen zaion kontua oso bestelakoa izaten da, hots, euskaraz argitaraturiko edo idatzitako testu hauek zinezko balio juridikoa.

Azal dezagun pittin bat sakonkiago arazo hau. Demagun ondorio juridikoak sortzen dituen testu bat (lege, kontratu... edo beste edozein) dugula euskaraz eta erdaraz eta hizkuntza desberdinez egindako testuak edukinaren aldetik ere elkarretik desbideratzen direla, desbideratze hori nabari delarik. Orduan, nora jo? Euskarazko testura? Erdarazko testura? Edo bietarikoen artean gure interesen aldekoen denera?

Arin ulertuko denez ez da gauza erraza asmatzea zein den irtenbidea, batez ere lege arazoetan bi testuek balio ofiziala berbera dutela kontutan hartzen bada. Eztabaida kasuan, Jujea izango da, nahitanahiez, interpretatzeko unean sortzen diren hainbat auzi, katramila eta abar ebatziko dituen.

Dagoeneko lehen kasua eman da. Izan ere, «Ley de Territorios Históricos» delakoan, euskararekiko atxekidura sendo baterako inolako susmorik auresuposatzeko aukera ematen ez zuen Auzitegi Konstituzionalak bere 76/1988 Epaian, Apirilaren 26koan, euskarazko testua erabili zuen erdarazko testuaren sentidua eta esannahia, euskaraz eta testu berean erabiltzen ziren hitzen bidez, adierazi eta argitu nahian.

Kontratuetan eta alderdien borondateak sort ditzakeen hitzarmenetan, kontua oso bestelakoa da. Alderdiek, batetik, kontratuaren hizkuntza finka dezaketelako (kasu batzutan bederen) eta bestetik alderdi berek kontratu horretan ezar dezaketelako, kontratua edo ituna bi (edo hiru) hizkuntzetan idatzia badago, zeinek izango duen lehentasuna interpretatzerakoan edo eta biek balio berbera izango duten ala ez.

Alabaina argi dago eta zailtasunik gabe uler daiteke gure artean honela jokatzeko ohiturarik ez dagoen bitartean, alegia, kontratuak euskara hutsez edo bi hizkuntzetan burutzen ez diren bitartean, arazo hauek ez direla planteatuko.

Bai ordea, Nazioarteko tratu eta harremanetan eta hauexen gainean egituraturiko kontratu eta hitzarmenetan. Ohizkoa izaten

da hauexen artean batetik «choice of language clause» hau da, hizkuntza desberdina duten bi kontratu egileren artean adostasun berezia, beraien tratuetan erabiliko duten hizkuntzari buruzkoa eta areago, bi (edo gehiago) hizkuntzez idatzitako testuetan zein izango den nagusi zehazteko klausula berezia («controlling language clause»).

Honelakoak beharrezkoak badira Nazioarteko Zuzenbidean, askoz premiazkoagoak dira (edo izan behar) Estatu espainolaren gunean. Erdaraz baliatzeak, beste askotan legez, erosotasuna eta erraztasuna dauka, euskararen kaltetan.

Egia esateko, arestian esandakoa matizatu beharra daukagu. Egoera (kontratu egileena, Juleena...eta abar) ez delako batere aldekoa euskararentzat eta ohitura eta formazio eza nabaria delako. Azken finean, euskara, lerro hauen hasieran esan dugunez, ez da gaur egunean behintzat, segurtasun juridikoaren hizkuntza, ez lege esparruan ez eta alderdien arteko harreman juridikoetan.

Adibide ezin argiagoa ematen digu dagoeneko kaleratua dagoen «Euskaldunen Egunkaria»-k. Gosaltzeko orduan edozein erdal egunkari hartu eta pazientzia badu irakurleak, «ekonomia» orrialdeetara iristeko behar den hainakoa batipat, berehala somatuko du iragarki txiki eta motz andana bat, berauetan merkatal sozietateek, legearen aginduz, beren gorabeherak azaltzen dituztela. Eta «Egunkari» delakoan horrelakorik ikusi ez dugula aitortu behar, egoitza aldaketa edo sozietatearen eraldaketa euskaraz iragarri aukerarik egongo ez bailitzan. Arazoa beste nonbaitatik dator, hau da, gerokoan iragarki horrek izan ditzakeen eragin juridikoetatik.

BI EREMU BEREZIAK: HIZKUNTZA ETA KONTSUMOA

Euskararen presentzia ezari-ezarian areagotzen ari da gure gizartean (maila formal batzutan bederen). Gaur egun edozeinek ditu premiazko, bizitza arruntean, ura, argia zein telefonoa. Aspaldi

honetan zerbitzu hauek ematen dituzten enpresen artean (gehienak publikoak dira) beren inprimaki eta kontratuak euskaraz eskaintzeko joerak bere bidea lortzen dihardu. Are gehiago, «Telefónica»k zenbait kasutan euskara hutsezko ereduak aukeratzeko ahalmena ematen dio bezeroari. Beste batzutan, ordea, halako idazkera elebiduna dugu begi aurrean.

Biotan, dena den, gorabehera jakingarriak sort daitezkeen, batez ere Epaitegietan interpretatzeko unean, aldirik gehientsuetan Jukeak euskara ezagutu ez ezik, erdarazko itzulpen batetara jotzeaz gain erdarazko testua oso gertu edukiko duelako bere Epaia emateko.

Baina maila beheragokotara jaitsiz, frankotan gertatzen den jarraiko egoera hau ere aintzat hartzekoa dela uste dugu. Ari gara, ari ere, euskal kontsumitzaileak euskararekiko duen eskubidetasun murrizaz. Ez gabilta, ordea, Justizia Administrazioan eta bestelako lehiatila publikoetan euskara erabiltzerakoan ditugun arazoez ez bada kontsumorako diren produktuak euskaraz kontsumitzeko eta premiazko horniduren kontratuak euskaraz burutzeko beharraz.

Eguneroko dema bihurtu zaigu kontsumitzailearen eskubideak ozenki aldarrikatzea komunikabideetan. Txikiagokoa da, ia ezezaguna (salbuespen ezagun batekin) kontsumitzaileari eskuragarri zaizkion produktu eta zerbitzuak euskaraz emateko posibilitatea.

Eta eduki ere, honek baditu bere ekarpenak. Esaterako, produktuen osaketa nola eginga dagoen euskaraz azaltzeko beharra ez izateak (erdaraz derrigorrezkoa bait da) berebiziko ondorioak ekar ditzake ikuspegi juridiko batetik (eta ez gara Espainiako Konstituzioaren 3. artikuluz ahaztu).

Noraino bereganatu behar ditu kontsumitzaileak berak ezagutzen ez duen hizkuntza batez idatzitako etiketa batek ekar diezaizkiokeen kalteak? «Arrisku linguistiko» honen ardura bere gain hartu behar al du? Arlo honetan zernolako jokoak eduki

dezake erdara ezagutzeko «deber» konstituzional horrek? Honen edukina «aktiboa» da (hots, erdara ikasi beharrekoa) ala «pasiboa» (alegia, erdararen ezagutza eza ezin alegatzekoa)?

Galdera hauek eta antzekoek ere badute beren lekutxoak euskararen «normalizazio» delako horretan. Bitartea, eta lerro hauek gogoeta sakonago baten atariko zirriborroak besterik ez direnez geroz, asmo apala dute, euskararen eremura ikuspegi hauek ekartzekoa, hain zuzen ere, horrela hizkuntzaren eremu hori funtzio osoenetara zabal eta hedatzen dadin.

Andres Urrutia